

## GIZA BALIABIDEEN PLANA

### 1) ENPRESAREN ANTOLAKETA:

-Enpresaren barruan lan asko dago egiteko. Lehenik eta behin, beharrezkoa da harreman publikoen ardura duten bi pertsona izatea. Hau da, bezeroarekiko harremana mantentzeaz arduratuko den jendea behar da, eta aplikazioa erabiltzen dutenek kexa edo zalantzaren bat badute, lagunduko dien norbaitekin harremanetan jarri eta erantzun bat eman ahal izango diete. Bestalde, teknologiaz arduratuko diren hiru pertsona behar dira. Horiek arduratuko dira aplikazioaren sisteman dauden arazoak konpontzeaz. Horrez gain, gure app-aren eguneratzeak berrikusi eta eraman behar dituzte, aplikazioaren abiadura eta errendimendua hobetu behar dute eta aplikazioa zenbat jendek instalatzen duen kudeatu behar dute, errentagarria den kontrolatzeko. Azkenik, gu gara enpresaburuak. Horregaitik, gu dena antolatzeaz arduratzen gara, hau da, gure langileen solatak banatu eta kontrolatzeaz, aplikazioaren eta bezeroen pribatasunaren segurtasuna mantentzea...

-Gure ustez, garrantzitsuena enpresa-buruek daukagun lana da, ezinbestekoa baita enpresan ordena mantentzeko eta gure langile eta bezeroen ongizatea bermatzeko. Bestalde, app-aren informatikariak egongo dira. Horien lana oso garrantzitsua da gure produktua hobetzen joateko eta merkatuan mantentzeko. Azkenik, erlazio publikoen arduradunak egongo dira, aurrekoari esker, app-a osatuta eta oinarri on batekin bezeroekiko hurbileko harremana sortzeaz arduratuko direnak.

-App-ari eta enpresa osoari buruz hartu behar ditugun erabakiak bileretan hartuko dira. Gure ustez, oso garrantzitsua da hileroko gutxienezko bilera bat egitea, guztia nola funtzionatzen duen ikusteko eta hobetzen jarraitzeko iritziak eta aholkuak partekatzeko, edota arazoak konpontzeko.



## 2) GIZA BALIABIDEEN PLANA:

Lanerako oinarrizko prestakuntza eta esperientzia behar dira. App-aren diseinuaz arduratzeko, diseinuei buruzko prestakuntza duen norbait bilatuko dugu, dela unibertsitateko karrera bat, dela horrelako lanetan lehenago lan egin izana (ikus aurreko diseinuetako bat), dela prestakuntza-ikastaro bat. Bestalde, informatikaren gaiaz arduratzeko, informatikari buruzko azterlanak jaso izana frogatzen duen titulu bat eduki behar da. Gure kasuan, aplikazioen garatzaile bat behar dugu, eta, horretarako, unibertsitateko lanbide heziketa edo karrera bat duen norbait bilatzen dugu. Harreman publikoez arduratzen garenok hizkuntza desberdinak dakizkien norbait bilatzen dugu, gure bezeroekin komunikatzeko eta jendearekin harreman hurbila izateko erraztasuna duen norbait.

### Ekoizpen-plana:

#### 8.1 Finantzaketa-iturriak

Gure enpresaren finantzaketa iturriak izango dira diru-laguntzake eta gure aurrezkiak. Gure aurrezkien artean 10000\$ jarriko dituzte enpesako enpresaburuek. hau da; bakoitzak 3333,3\$ jarriko ditu. Eta beste 10000\$ eskuratzeko diru laguntza erabiliko dugu zehazki banku sabadelleko diru laguntza.

5ak diru kantitate berdina jar dutenez enpresaburua 5en artean banatuko da. Hau da, bakoitzak enpresaren %20 jabetasuna izango du

Guk erabilitako mailegua banko Sabadellekoa izango da eta diru laguntza hau %7ko iteresak izango ditu hau da, 100\$ko interesak eta 5 urteetan bueltatzeko aukera gehienez izango dugu hau da, 178.33\$ hileko

Gure ideia garatzeko 20000€ beharko ditugu. 5en artean 10000€ jarriko ditugu, beraz, eskatu beharreko mailegua 10000€koa izango da, eta hori bankuari eskatuko diogu. Guk erabiliko dugun bankua "Banco Sabadell" da, hainbat aukera aztertu ondoren, gure ideiarako hobeto moldatzen zaiguna baita.

Bankuaren izena	Amortizazio epea (zenbat urte)	Interesa
Banco Sabadell	5 urte	7